

Euskaltzaindiak 2012. urtean zehar hainbat lankidetzahitzarmen izenpetu ditu

Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularra

Martxoaren 7an, Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularrak eta Euskaltzaindiak lankidetzahitzarmen bat sinatu zuten Euskaltzaindiaren egoitzan. Fundazioaren izenean Antonio Damborenea presidentea sinatu zuen eta, Euskaltzaindiarenean, Andres Urrutia euskaltzainburua. Sinatze ekitaldian Alderdi Popularreko kide batzuk izan ziren -besteak beste, Antonio Basagoiti eta Iñaki Oiartzabal EAeko PPko presidentea eta idazkari nagusia, hurrenez hurren- eta baita Euskaltzaindiko Iker eta Jagon sailburuak ere, Andoni Sagarna eta Andres Iñigo.

Hitzarmen horrek Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularraren eta Euskaltzaindiaren arteko elkarlana sortzea zuen helburu. Besteren artean, euskararen normalizaziorako proiektuak garatzeko lanean arituko dira, eta baita, Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularraren barruan edo beronen bitartez, Euskaltzaindiak euskarari buruz emandako arauak edo gomendioak hedarazteko.

Erakunde biek elkarren esku jarriko dituzte ikerketarako interesgarriak izan daitezkeen lan argitaragabeak, hala nola tesiak, edo bestelako lanak. Elkarri beren ikertze-funtsen ondarea erabiltzeko aukera eskainiko diote, bai eta, bereziki, beren artxibo eta bibliotekak ere. Biek beren argitalpenak elkarrekin trukatzeko mekanismo egokiak ezarriko dira, horrela zeinek bere bibliotekako euskal gaien funtsak sendotu eta osatu ahal izateko. Argitalpenei dagokienez, elkarrekiko lana bultzatuko da, eta biek batera eginiko argitalpenei lagunduko zaie. Horretarako, euskararen inguruan sorturiko testuak ezagutarazteko ahaleginak egingo dituzte. Lankidetzahitzahitzarmenak bultzatuko dute ikastaroak eta sinposioak eginez.

Soziolinguistika Klusterra

Martxoaren 30ean, Soziolinguistika Klusterrak eta Euskaltzaindiak bi erakundeen arteko lankidetzeta-hitzarmena sinatu zuten Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian. Klusterraren izenean Jaime Altuna presidenteari sinatu zuen, eta Euskaltzaindiarenean Andres Urrutia euskaltzainburuak. Eurekin batera, Ibon Usarralde Klusterreko kudeatzailea eta Andres Iñigo Euskaltzaindiko Jagon sailburua izan ziren.

Hitzarmen horrek bost urteko iraupena izango du eta Soziolinguistika Klusterraren eta Euskaltzaindiaren arteko elkarlana sortzea du helburu, euskararen normalizazioari buruzko proiektu partekatuak gauzatzeko. Euskararen jakitea, erabilera zein haren aldeko sustapenaren ikerketa eta dibulgazioa izango dira, batez ere, bi erakundeon arteko hitzarmenaren xede nagusiak.

Hitzarmenaren ondorioetako bat hau izango da: Euskaltzaindiak Soziolinguistika Klusterrean Ohorezko bazkidearen izaera edukiko du, Elkartea honen estatutuetan jasota dauden baldintzen eta arauen arabera. Soziolinguistika Klusterrak, Euskaltzaindia ohorezko bazkide izan dadin Klusterraren estatutuak aldatu behar direnez gero, bide horretan eman beharreko urratsak emateko prozedura abian jartzeko konpromisoa hartu zuen. Eta horrela erabaki zuen ekainaren 14an, Donostiako Aquariumean izandako VIII. Batzar Orokorrean.

Soraluzeko Udala

Martxoan, Soraluzeko Udalak eta Euskaltzaindiak hitzarmen bat sinatu zuten, herriko toponimia ikertzeko eta arautzeko. Hitzarmen horren xedea Soraluzeko toponimoak eta herriko ageriko hizkuntza-paisaia normalizatzea zen.

Lana Jon Basauri ikertzaileari egokitu zitzaion, beharra gainbegiratzeko Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak izendatu zuen Jon Ander Ra-

mos-en zuzendaritzapean. Ikerketaren lehenengo zatian dokumentazioa ikertuko da eta bigarrenean ahozko bilketa egingo dute.

Nafarroako Gobernua

2012ko apirilaren 3an sinatu zen Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko aurtengo lankidetzahitzarmena. Akademiaren izenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatu zuen eta, Foru Gobernuaren izenean, Maximino Gómez Euskarabidearen zuzendari kudeatzaileak.

Akordio horren arabera, hauek ziren 2012. urteko eginkizun nagusiak:

- Euskal Corpus Onomastikoa: egitasmoari jarraipena ematea
- Mendaur bildumaren argitalpen berri baten prestaketa
- Euskaltzaindiaren jarduera gastuetan laguntzea

Langune

Apirilaren 27an, Langune Hizkuntza Industrien Elkarteak eta Euskaltzaindiak bi erakundeen arteko lankidetzahitzarmena sinatu zuten Bilbon, Akademiaren egoitzan. Langunearen izenean Josu Waliño presidentek sinatu zuen, eta Euskaltzaindiarenean Andres Urrutia euskaltzainburuak. Sinatze ekitaldia osoko batzarraren atsedendian egin zen, hori dela eta, gainerako euskaltzainak hor izan ziren, baita Fernando Alana Languneko zuzendaria ere.

Hitzarmen horrek bi urteko iraupena izango du eta bere xedea hizkuntza gaietako ekimenak gauzatzea, garatzea eta zabaltzea da. Bi erakundeon arteko elkarlana euskararen normalizaziorako proposatzen diren egitasmoen inguruan gauzatuko da, teknologia berrien arloan euskararen presentzia eta erabilera areagotzera bideratutako proiektuen inguruan batez ere.

Mallabiko Udala

Maiatzaren 18an, Mallabiko Udalak eta Euskaltzaindiak hitzarmen bat sinatu zuten, herriko toponimia biltzeko. Udalaren izenean, Milagros Mondragon alkateak eta, Euskaltzaindiarenean, Xabier Kintana idazkariak sinatu zuten.

Lana, Pello Mugartzak eta Justo Azagirrek egingen dute. Lanaren oinarriko datu iturria Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egindako ikerketa bada ere, harago joango da eta toponimia txikiaren bilketa osoa egin behar da. Horretarako, ikertzaileak saiatuko dira baserri guztietan izenak biltzen. Lanaren zuzendaria Onomastika batzordeko idazkaria den Mikel Gorrotxategi izango da. Lana aurrera atera ahal izateko EUDEL-en laguntza jaso da.

Amaitutakoan, datutegia zehatzeaz gain, mapa bat gauzatuko da.

Jakin aldizkaria

Jakin aldizkariak eta Euskaltzaindiak elkarren arteko lankidetzak hitzarmena sinatu zuten, ekainean. Hitzarmen horren ondorioz, aldizkariak urtean sortu duen euskarazko testu-masa osoa Euskaltzaindiaren eskuetan jarriko du, Akademiak Lexikoaren Behatokia deritzan egitasmoa gara dezan.

Lexikoaren Behatokiaren xedea corpus monitore bat, lematizatua, etiketatua eta oharpen linguistikoz hornitua eraikitzea da. Egitasmo horretako testu-masak hainbat hedabidek euskaraz ekoiztutako berriak, ahozkoak nahiz idatzizkoak, hartzen ditu oinarritzat, zurrupatzat eta corpusaren zoru bihurtuz. Akademia; UZEI, Elhuyar eta EHUko Ixa taldearekin garatzen ari da.

Getariako Udala

Getariako Udala eta Euskaltzaindia elkarlanean arituko dira, herriko toponimia biltzeko, arautzeko eta normalizatzeko. Helburu horrekin, ekainaren 23an, bi erakundeen arteko lankidetzak hitzarmena sinatu zuten Nika

Lertxundi Getariako alkateak eta Andoni Sagarna Euskaltzaindiaren Gipuzkoako ordezkari eta Iker sailburuak.

Ikerketa Getariako boluntario talde batek egingo du, eta tutoretza lana Euskaltzaindiaren Onomastika zerbitzuak. Lanaren amaieran, Geograma enpresak egingo duen herriko mapa toponimikoa argitaratuko da.

Elhuyar Fundazioa

Uztailean, Elhuyar Fundazioak eta Euskaltzaindiak bi erakundeen arteko lankidetzak hitzarmen berria sinatu zuten. Hitzarmen horren ondorioz, *Elhuyar zientzia eta teknologia* aldizkariak urteetan sortu duen euskarazko testu-masa osoa Euskaltzaindiaren eskuetan jarriko du, Akademiak Lexikoaren Behatokia deritzan egitasmoa gara dezan.

Lexikoaren Behatokiaren xedea corpus monitore bat, lematizatua, etiketatua eta oharpen linguistikoz hornitua eraikitzea da. Egitasmo horretako testu-masak hainbat hedabidek euskaraz ekoiztutako berriak ahozkoak nahiz idatzizkoak hartzen ditu oinarritzat, zurrupaturik eta corpusaren zoru bihurtuz. Akademia UZEI, Elhuyar eta EHUko Ixa taldearekin garatzen ari da egitasmoa.

Baionako Herriko Etxea

Urriaren 22an, Baionako Mediatekan, Baionako Herriko Etxeak eta Euskaltzaindiak bi erakundeen arteko lankidetzak hitzarmena sinatu zuten, historian lehenbiziko aldiz. Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Jean-René Etchegaray Baionako alkateordeak izenpetu zuten hitzarmena, bi erakundeen izenean. Ekitaldian Isabelle Blin, Baionako Mediatekako zuzendariak ere parte hartu zuen.

Hitzarmenak jasotzen duenez, Baionako Mediatekak Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogo-funtsaren indizeak kontsultatu ahal izango ditu, Euskal Funtsak egitasmoaren inguruabarrean, baldintza batzuen arabera. Era berean, Mediatekaren baliabideetan edo argitalpenetan Euskal-

tzaindiaren Azkue Bibliotekaren kolaborazioa aipatuko da, horrek Euskal Funtsak egitasmoarekin lotura duen neurrian.

Sinatu ostean, E. Goyhenecheren *Onomastique du Nord du Pays Basque* liburuak aurkeztu zuten Xarles Videgain euskaltzain oso eta Euskaltzaindiko buruordeak bera da liburuaren paratzailea eta Andres Urrutia euskaltzainburuak. Hain zuzen ere, Videgain da liburuaren prestatzailea.

Deustuko Unibertsitatea

Azaroaren 13an, Deustuko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak akordio bat sinatu zuten, euskararen eta euskal kulturaren esparruan lankidetzako proiektuak eta ikerketak garatzeko. Hitzarmena Jaime Oraá errektoreak eta Andrés Urrutia euskaltzainburuak sinatu zuten.

Hitzarmenak, beste puntu batzuen artean, jasotzen du Deustuko Unibertsitateko doktoregaiak eta beste ikasle batzuek ikerketak eta praktikak egin ahal izango dituztela Euskaltzaindiaren egoitzan, Luis Villasante Euskararen Ikergunean eta Akademiaren ordezkari zetan.

Horrez gain, Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak euren ikerketa-funtsak erabiltzeko aukera izango dute, baita, bereziki, euren artxiboak eta liburutegiak ere. Bi erakundeek beren argitalpenak elkarrekin trukatzeko mekanismo egokiak ezarriko dituzte, horrela, zeinek bere liburutegiko euskal gaien funtsak sendotu eta osatu ahal izateko.

Argitalpenei dagokienez, bultzatu egingo da bi erakundeen arteko elkarlana eta batera burututako argitalpenak sustatuko dira. Era berean, bi erakundeek batera lan egingo dute euskal hizkuntzaren normalizaziorako proiektuak garatzen eta Euskaltzaindiak euskararen inguruan argitaratu dituen arau eta gomendioak zabaltzen. Horretarako, bi erakundeek teknologia berrien erabilera babestuko dute.

Bestalde, Euskaltzaindiak Lexiko Batuaren, Arauen, Izendegien eta Onomastikaren arloetan harturiko erabakien edo egindako gomendioen erabilera errazteko bideak ezarriko dira.

Deustuko Unibertsitateak antolatzen dituen ikastaro, jardunaldi, mintegi, aholkularitza, eta bereziki hizkuntzaren jakiteari zein erabilerari dagoen prestakuntzan, Euskaltzaindiaren gramatika, lexiko, ortografia, onomastika eta euskalkien erabilerari buruzko irizpideak aintzat hartuko ditu eta hauek zabaltzeko moduak landuko ditu.

Azkenik, bi erakundeek lankidetza politika bultzatuko dute masterrak, graduondokoak, ikastaroak, biltzarrak edo sinposioak batera antolatzeko eta burutzeko.

Ildo horretatik, hitzarmena sinatzeko ekitaldian bertan, Euskaltzaindiko Literatura Ikerketa batzordeak antolatutako jardunaldi bat aurkeztu zen, Eusebio Erkiaga idazle, kazetari eta Euskaltzaindiko kide izan zenaren jaiotzaren mendeurrena ospatzeko.

Euskararen Erakunde Publikoa

Azaroaren 16an, Euskararen Erakunde Publikoaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetza hitzarmena izenpetu zen, Université de Pau et des Pays de l'Adour (Salle des Thèses) Baionako campusean. Lankidetza hitzarmena izenpetu zuten Frantxua Maitia Euskararen Erakunde Publikoaren presidentek eta Andres Urrutia euskaltzainburuak, bi erakundeen izenean eta ordekaritzan.

Lankidetza hitzarmenak bi erakundeen arteko lankidetzaren nondik norakoak finkatzen ditu. Era berean, hitzarmenean jasotzen dira, besteak beste, 2012. urteko lan-jarduna burutzeko Euskaltzaindiak EEPtik jasoko duen laguntzaren zenbatekoa, horren kontura argitaratuko diren liburuak, EEPren proiektu deialdiko argitalpen proiektuen hizkuntza-kalitatearen azterketa, toponimoen grafia egokiari buruz EEPk jasoriko galderei erantzuteko era, toponimiaren eremuan Ipar Euskal Herriko euskara-teknikariak prestatzeko Euskararen Akademiak hartzen duen konpromisoa, IGN erakundearen toponimoen normalizatzeko lanaren emaitzak gizarteratzeko bi aldeek harturiko erabakia, eta abar.

KAS

Abenduaren 11n, IKAS Euskal Pedagogia Zerbitzuak eta Euskaltzaindiak bi erakundeen arteko lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten Baionan, Akademiaren ordezkariarekin. IKAS-en izenean Maite Erdozaintzi Etxart presidentek sinatu zuen, eta Euskaltzaindiarenean Andres Urrutia euskaltzainburuak. Haiekin batera Aines Dufau IKAS-eko zuzendari orokorra eta Aurelia Arkotxa euskaltzain eta Akademiaren Ipar Euskal Herriko ordezkaria izan ziren.

Hitzarmen horren ondorioz, besteak beste, euskararen normalizazioaz duten proiektuak partekatuko dituzte bi erakundeek. Bestalde, Euskaltzaindiak euskararen alorrean ezarritako arauak zabalduko ditu IKAS-ek, eta Akademiak IKAS euskal pedagogia zerbitzuak argitara ematen dituen materialen hizkuntza gainbegiratu du. Era berean, IKAS Pedagogia Zerbitzuak ekoitzi dituen euskarazko testuak Euskaltzaindiaren eskuetan jarriko ditu, Akademiak Lexikoaren Behatokia deritzan egitasmoa gara dezan.